**2021EKO MAIATZAREN 27AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL 27 DE MAYO DE 2021**

| | |
|---|---|
| **MODUA**: Presentzialki<br>**TOKIA**: Batzar aretoa<br>**EGUNA**: Hogeita zazpia<br>**HILABETEA**: Maiatza.<br>**URTEA**: Bi mila eta hogeita bat.<br>**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seiak eta erdi<br>**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa<br>**DEIALDIA**: Lehena<br>**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Bost (5)<br><br>**MAHAIBURUA/PRESIDENTE**:<br>Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)<br><br>**BILDUAK/REUNIDOS**:<br>Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)<br>Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)<br>Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)<br>Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br><br>**IDAZKARIA/SECRETARIA**:<br>ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA | **MEDIO:** Presencial<br>**LUGAR**: Salon de Plenos<br>**DIA**: Veintisiete<br>**MES**: Mayo<br>**AÑO**: Dos mil veintiuno<br>**HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas y treinta minutos.<br>**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.<br>**CONVOCATORIA**: Primera<br>**NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN**: Cinco (5) |
| **1.- AURREKO AKTA**. Aurreko aktaren onespena. 2021-05-06.<br><br>Aho batez onartu da. | **1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta de 06-05-2021.<br><br>Se ha aprobado por unanimidad. |
| **2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENA**:<br><br>EUSKAL FONDOAREKIN HITZARMENA. 2021BIBO0006<br><br>Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da: | **2.- PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE CIUDADANIA**:<br><br>CONVENIO CON EUSKAL FONDOA.<br><br>Se ha aprobado por unanimidad la siguiente propuesta de la comisión de Ciudadanía: |
| “AURREKARIAK | “ANTECEDENTES |

| | |
|---|---|
| Euskal Fondoa erakundearen helburua garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan aritzea da, garapen ekonomiko edo sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatuz, finantzatuz edo kudeatuz.<br><br>Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzak, garapenerako lankidetzako ekintzetarako Udalak eman beharreko laguntzen banaketa profesionalagoa egite aldera, Euskal Fondoaren bazkide egitea erabaki zuen 2014ko abenduaren 18an.<br><br>Euskal Fondoak, ekitaldi honetan, 2021erako aurkeztutako finantzaketa-proiektuen berri eman dio Udalari.<br><br>Gizarte Zerbitzuek proiektu horiek aztertu ondoren, maiatzaren 20ko herritarrak batzordeak horietako bi diruz laguntzea proposatu zuen:<br><br>- "P315K: Ur edangarriaren sistema eraikitzea. Pambach aldea, Santa Cruz Verapaz, 2. fasea: (2. fasearen aurrekontu osoa: 57.807,67 €).<br><br>- "P319K: Ur edangarriaren sistema instalatzea Ceiba komunitateetan. San Francisco Menendez, Ahuachapan. 2. fasea "(2. fasearen aurrekontu osoa: 146.627,57€).<br>2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartutako 2020-2022 diru-laguntzen plan estrategikoak helburu estrategiko gisa gizarte-ekintza sustatzea aurreikusten du (1. diru-laguntza lerroa, 1.5 jarduketa), eta 2020rako Udalaren Aurrekontu Orokorraren transferentzia arrunten eranskinean Euskal Fondoaren aldeko diru-laguntza izenduna aurreikusten da.<br>LEGERI APLIKAGARRIA<br>Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.<br><br>38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera. | La entidad Euskal Fondoa tiene como objetivo contribuir a la cooperación con los países en vías de desarrollo mediante la promoción financiación y gestión de proyectos y programas de desarrollo económico y social y/o de sensibilización.<br><br>Teniendo ello en cuenta, el Ayuntamiento Pleno, en aras a un reparto más profesional de las ayudas a conceder por parte del Ayuntamiento para las acciones de cooperación al desarrollo, acordó con fecha 18 de diciembre de 2014 incorporarse como socio a la referente entidad.<br><br>Euskal Fondoa en el presente ejercicio ha dado traslado al Ayuntamiento de los proyectos objeto de financiación presentados para el año 2021.<br><br>Analizados los citados proyectos por parte de los Servicios Sociales, la comisión de ciudadanía de fecha 20 de mayo propuso subvenionar dos de ellos:<br><br>-Proyecto “P315K: Construcción de un sistema de agua potable. Aldea Pambach, Santa Cruz Verapaz 2ª fase: 57.807,67 €)<br><br>-Proyecto “P319K: Introducción de agua potable en las comunidades Miramar y la Ceiba. San Francisco Menendez, Ahuachapan. 2ª fase: 146.627,57 €)<br><br>El plan estratégico de subvenciones 2020-2022 aprobado por Resolución de Alcaldía B19/1681 de fecha 18 de diciembre de 2019 prevé como objetivo estratégico la promoción de la acción social (linea de subvención 1, actuación 1.5), y el anexo de Transferencias corrientes del Presupuesto General del Ayuntamiento para 2021 prevé una subvención nominativa a favor de Euskal Fondoa.<br>LEGISLACIÓN APLICABLE<br>La Constitución Española señala en su artículo 43.3 que los poderes públicos fomentarán acciones que mejoren las condiciones de vida de los ciudadanos.<br><br>Que en el artículo 22.2.a) de la Ley 38/2003, general de subvenciones se prevé la posibilidad de concesión directa de las subvenciones previstas |

| | |
|---|---|
| 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.<br><br>Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 37. artikuluak berezko eskumen gisa aurreikusten du garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak, 14. artikuluan, eskumenak ematen dizkie udalei, egoki iritzitako garapenerako lankidetza-programak edo -ekintzak gauzatzeko.<br><br>Horren ondorioz,<br><br>ERABAKI DA<br><u>Lehenik</u>. Beasaingo Udala eta Euskal Fondoaren artean sinatzeko hitzarmenaren testua onartzea.<br>Bazkide izateagatik 2.996,63€ ordainduko zaizkio Euskal Fondoari urteko kuota gisa.<br>Proiektuak gauzatzeko, 71.003,37 euroko diru-laguntza emango zaio Euskal Fondoari (P315K: 34.982,67€ eta P319K: 36.020,70€).<br><u>Bigarren</u>. Hitzarmena sinatzeko baimena Alkateari ematea.” | nominativamente en los presupuestos de las entidades locales.<br><br>Que en el artículo 28 de la Ley 38/2003, general de subvenciones se configura el Convenio como instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales.<br><br>El artículo 37 de La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi prevé como competencia propia la *planificación, ordenación y gestión de las políticas en materias de cooperación al desarrollo* y la Ley 1/2007 de 22 de febrero, de Cooperación al Desarrollo del País Vasco en su artículo 14, otorga competencias a los Ayuntamientos para ejecutar los programas o acciones de cooperación al desarrollo que estimen oportunos.<br>En consecuencia, se ha adoptado el siguiente<br>ACUERDO<br><u>Primero</u>. Aprobar los términos del convenio adjunto a suscribir entre el Ayuntamiento de Beasain y Euskal Fondoa.<br>Por su condición de socio se abonará a Euskal Fondoa la cantidad de 2.996,63 €en concepto de cuota anual.<br>Para la ejecución de proyectos se concederá a Euskal Fondoa una subvención de 71.003,37 € (P315K: 34.982,67 y P319K: 36.020,70).<br><u>Segundo</u>. Facultar a la Alcaldesa para la firma del convenio.” |
| **<u>3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK</u>**:<br><br>• <u>OBRA ZIURTAGIRIA</u>: IGARTZA OLETA KALEAN ORIA IBAIAREN GAINEAN DAGOEN OINEZKOENTZAKO ESPALOIA ALDATZEKO OBREN BIGARRENGO ZIURTAGIRIA. 2018PROB0006<br><br>Aho batez onartu da, “Igartza Oleta kalean Oria ibaiaren gainean dagoen oinezkoentzako espaloia | **<u>3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO</u>**:<br><br>• <u>CERTIFICACIÓN DE OBRAS</u>: CERTIFICACIÓN SEGUNDA DE LAS OBRAS DE MODIFICACIÓN DE LA ACERA PEATONAL EXISTENTE SOBRE EL RÍO ORIA EN IGARTZA OLETA.<br><br>Se ha aprobado por unanimidad la certificación segunda de las obras de modificación de la acera peatonal existente sobre el río Oria en Igartza Oleta *46.814,98 €* (IVA incluído). |

| | |
|---|---|
| aldatzeko**”** obrei buruzko obren 2. ziurtagiria, *46.814,98* €koa (BEZ barne). | |
| • <u>OBRA ZIURTAGIRIA</u>: DOLAREA PARKETA BIRMOLDATZEKO OBREI BURUZKOA LEHENENGO ZIURTAGIRIA. 2019PROB0006<br><br>Aho batez onartu da, “Dolarea parkea birmoldatzeko” obrei buruzko obren 1. ziurtagiria, 65.633,52 €koa (BEZ barne). | • <u>CERTIFICACIÓN DE OBRAS</u>: CERTIFICACIÓN PRIMERA DE LAS OBRAS DE REMODELACIÓN DEL PARQUE DOLAREA.<br><br>Se ha aprobado por unanimidad la certificación primera de las obras de “remodelación del parque Dolarea” 65.633,52 € (IVA incluído) |
| • <u>OBRAK ESLEITZEA</u>. MURUMENDI IKASTETXEAN ERABILERA ANITZEKO GELA EGITEKO LOKALA BERRITZEKO OBRAK. 2020OBMA0015<br>Ezagutzera eman da 2021eko maiatzaren 13ko kontratazio mahaiaren proposamena, hau da: | • <u>ADJUDICACIÓN DE OBRAS</u> DE REFORMA DE LOCAL PARA SALA POLIVALENTE DE MURUMENDI IKASTETXEA.<br><br>Se ha informado la siguiente propuesta de la la mesa de contratación del 13 de mayo de 2021: |
| “*1.- Kontratazio Mahaiaren 2021-04-27ko bileran CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L. eta UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresak lizitazioan parte hartzea onartu zen.*<br><br>*2.- B kartazala (formula automatikoen bidez ebaluatuko ezin diren irizpideei dagokion dokumentazioa) gai horretan teknikoa den bokalari pasatu zitzaion aztertu eta ebaluatu ahal izateko.*<br><br>*3.- Txosten hori eginda, 2021eko apirilaren 12an egindako bileran edukiaren berri eman zen, eta Kontratazio Mahaiak on iritzia eman zion.*<br><br>*Lizitatzaileek atal horretan lortutako puntuazioa guztira honako hau da:* | ***“1.-*** *En la sesión de la Mesa de Contratación del 27-04-2021, se admitió a participar en la licitación a las empresas: CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L. y UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.*<br><br>***2.-*** *Se pasó el sobre B (documentación relativa a criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas), a estudio y evaluación del vocal técnico en la materia.*<br><br>***3.-*** *Emitido el mencionado informe, en la reunión celebrada con fecha 12 de abril de 2021 se dio a conocer su contenido, al cual se le dio el visto bueno por parte de la Mesa de Contratación.*<br><br>*La puntuación total obtenida por los licitadores en ese apartado es la siguiente:* |

| | |
|---|---|
| *CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.* | *9,85* |
| *UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.* | *28,00* |

| | |
|---|---|
| *Kontratazio-plataforman iragarri zen bezala, gaurko egunean 10,00etan, jendaurreko ekitaldian C* | *Kontratazio-plataforman iragarri zen bezala, gaurko egunean 10,00etan, jendaurreko ekitaldian C* |

| | |
|---|---|
| *artxibo elektronikoa ireki da: eskaintza ekonomikoa eta formula automatikoen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa (2. eranskina, eskaintza ekonomikoa eta 11. eranskina, baldintza-agirian ezarritakoa baino berme-epe luzeagoa).*<br><br>*C artxibo elektroniko horretan, 4. eranskina ere sartu behar da, hain zuzen ere:*<br><br>*- Lizitazioa prezioa: 139.174,49 € + BEZ.*<br><br>*- Berme epea: urte 1.*<br><br>*- Gehieneko azpikontratazioaren portzentaia: ez dago.*<br><br>*Irizpide automatikoen balorazioa:*<br><br>*Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu.*<br><br>*Baldintza-agirian ezarritako baino berme-epe handiagoa: 10 puntu.*<br><br>*Aurkeztutako eskaintzak ondorengoak izan dira:* | *artxibo elektronikoa ireki da: eskaintza ekonomikoa eta formula automatikoen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa (2. eranskina, eskaintza ekonomikoa eta 11. eranskina, baldintza-agirian ezarritakoa baino berme-epe luzeagoa).*<br><br>*También es preciso incorporar a este archivo electrónico el anexo 4, relativo a la subcontratación.*<br><br>*Precio de licitación: 139.174,49 € + IVA*<br><br>*- Plazo de garantía: 1 año.*<br><br>*- Porcentaje máximo de subcontratación: no existe.*<br><br>*Valoración criterios automáticos:*<br><br>*La oferta económica: 60 puntos.*<br><br>*El plazo de garantía superior al establecido en el pliego: 10 puntos.*<br><br>*Las ofertas presentadas han sido las siguientes:* |

| **Licitadores**<br>**Lizitatzaileak** | **Eskaintza ekonomikoa**<br>**Oferta económica** | **Berme epea**<br>**Plazo garantía** | **Azpikontratazioa**<br>**Subcontratación** |
|---|---|---|---|
| *CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.* | *133.607,51 € + IVA* | *0 + 1* | *40,54* |
| *UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.* | *123.726,00 + IVA* | *8 + 1* | *46,39* |

| | |
|---|---|
| *Aurkeztutako eskaintzen balorazio egin ondoren, emaitza ondorengo da:* | *Efectuada la valoración de las ofertas presentadas, el resultado es el siguiente:* |

| **Licitadores**<br>**Lizitatzaileak** | **Memoria teknikoa**<br>**Memoria técnica** | **Berme epea**<br>**Plazo garantía** | **Eskaintza ekonomikoa**<br>**Oferta económica** | **Puntuaketa guztira**<br>**Puntuación total** |
|---|---|---|---|---|
| *CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.* | *9,85* | *0* | *14,666* | ***24,51*** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. | 28 | 10 | 40,700 | **78,70** |

*Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak proposatuta, ondorengoa*

*ERABAKI DA*

*Lehenik. Beasaingo Murumendi Ikastetxean erabilera anitzeko gela egiteko lokala berritzeko obren kontratua, UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.ri esleitzea, puntuazio gehien lortu duen enpresa delako.*

*Bigarren. Esleipena baldintza-pleguen eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.*

*Hirugarren. Esleipen prezioa: 123.726,00 + IVA*

*Laugarren. Egikaritze epea: 10 aste.*

*Bosgarren. Berme epea: 9 urte obrak behin betirako rezepzionatzen direnetik.*

*Seigarren. Kontratuaren arduraduna, udal aparejadorea izendatzen da.*

*Zazpigarren. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:*

- *12.372,60 €ko behin betiko fidantza.*
- *Erantzukizun zibileko poliza, 600.000,00 eurokoa.*
- *Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.*

*Zortzigarrena. Fidantza aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena emango zaio, eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”*

*En consecuencia, a propuesta de la Mesa de Contratación se ha adoptado el siguiente*

*ACUERDO*

*Primero. Adjudicar el contrato de obras de reforma de local para sala polivalente en Murumendi Ikastetxea de Beasain, a UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L., por ser la empresa que mayor puntuación ha obtenido.*

*Segundo. La adjudicación se efectúa con arreglo a los pliegos de condiciones y a la oferta presentada por la empresa.*

*Tercero. Precio de adjudicación: 123.726,00 + IVA*

*Cuarto. Plazo de ejecución: 10 semanas.*

*Quinto. Plazo de garantía: 9 años desde la recepción definitiva de las obras.*

*Sexto. Se designa como responsable del contrato al aparejador municipal.*

*Séptimo. Requerir al adjudicatario para que en un plazo de diez días hábiles a contar a partir del siguiente al del requerimiento, aporte la siguiente documentación:*

- *Fianza definitiva por valor de 12.372,60 €*
- *Póliza de responsabilidad civil por importe de 600.000,00 €.*
- *Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, alta en IAE.*

*Octavo. Tras presentar la fianza, se efectuará la adjudicación definitiva para lo cual se facultará a la Alcaldesa y posteriormente se deberá firmar el correspondiente contrato administrativo. “*

| | |
|---|---|
| • <u>OBRAK KONTRATATZEA</u>. BALDINTZA PLEGUA ETA DEIALDI BERRIA EGITEA BEASAINGO ZAHAR EGOITZA ERAIKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO. 2021OBMA0004<br><br>Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da, aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin: | • <u>CONTRATACIÓN DE</u> OBRAS. PLIEGO DE CONDICIONES Y CONVOCATORIA PÚBLICA PARA CONTRATAR LAS OBRAS DE HABILITACIÓN DEL HOGAR DEL JUBILADO.<br><br>Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Territorio para aprobar el proyecto y los pliegos de condiciones para la contratación de las citadas obras y proceder a su contratación mediante convocatoria pública abierta con el siguiente detalle: |
| *1.- Prozedura*: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.<br>*2.- Izapidetzea*: arrunta<br>*3.- Lizitazio prezioa*: 583.774,81 € BEZ gabe<br>*4.- Egikaritze epea*: 20 aste<br>*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa eta teknikoa: ondorengo klasifikazioa eskatzen da:*<br><br>C taldea: 7 azpitaldea, 3. Kategoria<br><br>Horrezaz gain obra buruari ondorengo tituluak eskatzen zaizkio: Arkitektoa, arkitekto teknikoa, eraikuntzako ingeniari teknikoa edo goi mailako ingeniaria. %40etik gorako dedikazioa.<br><br>Obraren arduradunari berriz, Titulazio jakinik gabea. %100eko dedikazioa.<br><br>*7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: *26 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.*<br><br>*8.- Adjudikazio irizpideak*:<br><br><u>Balorazio automatikoa</u>:<br><br>- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.<br>- Berme epea handitzea: 10 puntu.<br><br><u>Balorazio ez automatikoa</u>:<br>Memoria teknikoa: 30 puntu.<br><br>*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.<br><br>*10.- Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte. | *1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*<br>*2.- Tramitación: ordinaria*<br>*3.- Precio de licitación: 583.774,81 € sin IVA*<br>*4.- Plazo de ejecución: 20 semanas.*<br>*5.- Solvencia económica y financiera: se exige la siguiente clasificación:*<br><br>Grupo C: Subgrupo 7 categoría 3<br><br>Además, se exige al Jefe de Obra la titulación de Arquitecto, Arquitecto Técnico, Ingeniero Técnico de Construcción o Ingeniero Superior, con una dedicación superior al 40%.<br><br>Al responsable de la obra, sin titulación específica, con una dedicación del 100%.<br><br>*7.- Plazo, lugar y hora para la presentación de proposiciones: 26 días naturales contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.*<br><br>*8.- Criterios de adjudicación:*<br><br><u>Valoración automática</u>:<br><br>- Propuesta económica: 60 puntos.<br>- Plazo de garantía superior: 10 puntos.<br><br><u>Valoración no automática</u>:<br>Memoria técnica: 30 puntos.<br><br>*9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas de realizará en el lugar, día y hora que figure en el perfil del contratista.*<br><br>*10.- Documentación a presentar: Los licitadores deberán presentar la documentación que se indican en el pliego de condiciones administrativas.* |

| | |
|---|---|
| *11.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa: Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar direnean eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua duenean kontratuaren exekuzioari lotuta, enpresak, kontratua exekutatzeko eta exekuzio epe osoan zehar, gutxienez emakume langile berri bat kontratatu beharko du edo emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da, plantilla osoan emakumeak % 40tik behera badira."* | *11.- Condiciones especiales de ejecución: En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista o subcontratista cuente con una representación desequilibrada de mujeres en la plantilla, deberá realizar para la ejecución del contrato y durante todo el plazo de ejecución, al menos una nueva de contratación de mujer o transformar al menos una contratación temporal de mujer en contratación indefinida. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquella que cuente con una representación o presencia de mujeres inferiores al 40% del total de esta."* |
| Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da: | Tras realizar la votación se ha adoptado el siguiente acuerdo por unanimidad. |
| **<u>Lehenik</u>**. Proiektua baldintza hauekin onartzea:<br>- Obra-planak kapitulu bakoitzaren kostua jaso beharko du.<br>- CTE-DB-HEren justifikazioa sartu behar da 2019ko abenduko bertsioan. Kasu honetan, DB-HE0, DB-HE1, DB-HE2 eta DB-HE3 betetzen direla justifikatu behar da.<br><br>**<u>Bigarren</u>**. Baldintza plegu administratiboa onartzea.<br>**<u>Hirugarren</u>**. Lizitazioa Euskadiko plataforman argitaratuko da, proiektua esandako moduan osatzen denean. | **<u>Primero</u>**. Aprobar el proyecto con las siguientes condiciones:<br>- El plan de obra deberá recoger el coste de cada capítulo.<br>- Se debe incluir la justificación del CTE-DB-HE en la versión de diciembre de 2019. En este caso se debe justificar el cumplimiento del DB-HE0, DB-HE1, DB-HE2 y DB-HE3.<br><br>**<u>Segundo</u>**. Aprobación del pliego de condiciones administrativas.<br>**<u>Tercero</u>**. La licitación se publicará en la plataforma de Euskadi cuando el proyecto se haya completado en la forma indicada. |
| **<u>4.- ESKAERA ETA GALDERAK</u>**<br><br>Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.<br><br>Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen, akta hau idatzi eta sinatu dut. | **<u>4.- RUEGOS Y PREGUNTAS</u>**<br><br>En el apartado de ruegos y preguntas no se ha formulado ninguna.<br><br>Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las dieciocho horas y cincuenta y cinco minutos, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta. |